

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Zurbao herriko 3. poligonoko 296,258 eta 266 lurzatiak borondatez birzatzeko proiektuari hasierako onarpena ematea

Abuztuaren 10eko 222/2022 zenbakiko alkatetzaren dekretuaren bidez, Zurbao herriko 3. poligonoko 296,258 eta 266 lurzatiak borondatez birzatzeko proiektuari hasierako onarpena eman zitzaion.

Vitoria-Gasteizko Francisco Rodríguez-Poyo Segura notario jaunak baimendutako eskritura publikoan formalizatu zen, 2022ko irailaren 27an (protokolo-zk.: 4.837), eta jendaurrean jarri zen, hoguei egunez, Tomás López de Luzuriaga Pinedo eta Lucrecia-María de la Encina García Feijoo de Sotomayor jaun-andreek, jabe diren aldetik, aurkeztutako proiektua, interesdunek egoki iritzitako alegazioak edo eragozpenak aurkeztu ahal izan ditzaten, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 48.2 artikulua betez. Era berean, interesdunen eskura egongo da udal-bulegoetan.

Hori guztia argitara ematen da abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuak onartutako Lurzoruari Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatu eta aplikatzeko Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduaren 101. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Duranan, 2022ko urriaren 11n

Ordezko alkatea

AMAGOIA SÁEZ DE IBARRA VEA-MURGIA